

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

13. ildoaren diru-laguntzak ematea eta ukatzea. Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteetarako (IGE) diru-laguntzak, 2018-2019 ikasturteko eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako

Tokiko Gobernu-Batzarrak 2018ko abenduaren 14an egindako ohiko bileran, onetsi egin dira 13. ildoaren diru-laguntzak ematea eta ukatzea - Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteetarako (IGE) diru-laguntzak, 2018-2019 ikasturteko eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan ezarritakoa betez, honako hau argitaratu da, informazioa emateko xedez:

13. ildoaren diru-laguntzak ematea eta ukatzea - Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteetarako (IGE) diru-laguntzak, 2018-2019 ikasturteko eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako.

2018ko urriaren 24an argitaratu ziren ALHAOn, Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteetarako (IGE) 2018-2019 ikasturteko eskolaz kanpoko jardueretarako eta jarduera osagarrietarako (13. ildo) diru-laguntzen deialdi publikoa eta oinarri espezifikoa, 2018ko urriaren 5ean Tokiko Gobernu-Batzarrak egindako ohiko bilkuran onartutakoak. Deialdiaren laburpena 2018ko urriaren 24an argitaratu zen ALHAOn, eta data horretatik aurrera hasi zen zenbatzen eskariak egiteko epea.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Vitoria-Gasteizko udaleko diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen udal ordenantzak ezarritakoa betez eta 2018. urterako Vitoria-Gasteizko udaleko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan (Tokiko Gobernu-Batzarrak 2017ko abenduaren 1ean onartua) jasotakoarekin bat etorrira, balorazio-organoa elkartu da, eta, aipatutako deialdi horretan egin diren eskariak kontuan hartuta, diru-laguntzak emateko eta ukatzeko proposamena egin du.

Indarrean dagoen gastuen aurrekontuan, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren 2018ko udal aurrekontu luzatuko 2319 03 3261 48010 kontu-sailean, zehazki, nahikoa diru-izendapen badagoela kontuan hartuta, Tokiko Gobernu-Batzarrak 2016ko maiatzaren 24an eskumenak eskuordetzeari buruz hartutako erabakiaren bertutez, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak honako proposamen hau egin du, Tokiko Gobernu-Batzarrak azter dezan:

Akordioaren proposamena

Lehen. I. eranskinean zerrendatutako laguntzak onestea eta bertan aipatzen diren elkar-teei ematea 2018-2019 ikasturterako, eta eranskinean agertzen diren zenbatekoetan elkar-teei bakoitzarentzako, guztira, 126.000,00 eurokoak. Diru-laguntzak, Kultura, Hezkuntza eta Kirol sailaren udal aurrekontuko 2319 03 3261 48010 partidaren kontura emango dira. Aipatutako diru-laguntza bi ordainketetan gauzatuko da: lehenengoa 2018ko udal aurrekontuaren kontura eta bigarrena, 2019ko udal aurrekontuaren kontura, baldin eta aurrekontu horretan kreditu egokia eta nahikoa badago.

Bigarrena. Il eranskinean agertzen diren elkarteei diru-laguntza ukatzea, bertan bidezkotutako arrazoiarengatik.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 21ean

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

I. eranskina: onetsitako eskariak eta emandako diru-laguntza

IGE onuradunak	Ikastetxea	2018-2019 ikasturteko diru-laguntza	Diru-laguntzaren lehenengo ordainketa (% 40)	Diru-laguntzaren bigarren ordainketa (% 60)
AMPA Oihan Guraso elkarte	CEIP Arantzabela ikastola HLHI	2.839,13	1.135,65	1.703,48
AMPA Malizhaeza Guraso elkarte	CEIP Abendaño ikastola HLHI	3.075,35	1.230,14	1.845,21
AMPA Ikasberri Guraso elkarte	CEIP Adurtza ikastola HLHI	2.256,55	902,62	1.353,93
AMPA Aldaiaberri Guraso elkarte	CEIP Aldaialde HLHI	1.239,16	495,66	743,50
AMPA Zuriber Guraso elkarte	CEIP Aranbizkarra ikastola HLHI	2.547,33	1.018,93	1.528,40
AMPA Izartegia Guraso elkarte	CEIP Ángel Ganivet HLHI	3.334,72	1.333,89	2.000,83
AMPA Dimacip Guraso elkarte	CEIP Divino Maestro- María de Maeztu HLHI	3.125,44	1.250,18	1.875,26
AMPA Ibaikide Guraso elkarte	CEIP Ibaiondo HLHI	2.644,03	1.057,61	1.586,42
AMPA El Polvorín Guraso elkarte	CEIP Judimendi HLHI	3.929,38	1.571,75	2.357,63
AMPA Eguzkilo Guraso elkarte	CEIP Lakuabizkarra HLHI	3.049,47	1.219,79	1.829,68
AMPA Bambi-Landaruzi Guraso elkarte	CEIP Landazuri ikastola HLHI	1.779,28	711,71	1.067,57
AMPA Jakintza Guraso elkarte	CEIP Luis Dorao HLHI	3.413,10	1.365,24	2.047,86
AMPA Gurasoak Guraso elkarte	CEIP Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro HLHI	2.369,83	947,93	1.421,90
AMPA Mariturri Guraso elkarte	CEIP Mariturri HLHI	2.625,38	1.050,15	1.575,23
AMPA Miguel de Cervantes Guraso elkarte	CEIP Miguel de Cervantes HLHI	3.639,32	1.455,73	2.183,59
AMPA Odón de Apraiz Guraso elkarte	CEIP Odón de Apraiz ikastola HLHI	2.326,31	930,52	1.395,79
AMPA El Lago Guraso elkarte	CEIP Padre Orbiso HLHI	3.666,95	1.466,78	2.200,17
AMPA Ehari Guraso elkarte	CEIP Pedro Ignacio Barrutia ikastola HLHI	3.259,77	1.303,91	1.955,86
AMPA Basartea Guraso elkarte	CEIP Ramón Bajo HLHI	1.989,94	795,98	1.193,96
AMPA Aintzira-Senideak Guraso Elkarte	CEIP Salburua HLHI	3.665,20	1.466,08	2.199,12

AMPA San Martín Guraso elkarte	CEIP San Martín HLHI	3.928,03	1.571,21	2.356,82
AMPA Beato Tomás de Zumárraga Guraso elkarte	CEIP Santa María de Vitoria HLHI	3.107,12	1.242,85	1.864,27
AMPA Lekueder Guraso elkarte	CEIP Toki-Eder ikastola HLHI	2.606,04	1.042,42	1.563,62
AMPA Umandi Guraso elkarte	CEIP Umandi ikastola HLHI	2.543,88	1.017,55	1.526,33
AMPA Amezti-Txiki Guraso elkarte	CEIP Zabalzana HLHI	3.029,44	1.211,78	1.817,66
AMPA Armentxo Guraso elkarte	CPEIPS Armentia ikastola HLBHIP	2.829,46	1.131,78	1.697,68
AMPA Carmelitas Sagrado Corazón Guraso elkarte	CPEIPS Carmelitas-Sagrado Corazón HLBHIP	2.161,93	864,77	1.297,16
AMPA Mendizabala Guraso elkarte	CPEIPS CEU Virgen Niña HLBHIP	1.574,84	629,94	944,90
AMPA AMPACI Guraso elkarte	CPEIPS Inmaculada HLBHIP	1.509,91	603,96	905,95
AMPA Nazareth Guraso elkarte	CPEIPS Nazareth Salesianas HLBHIP	1.347,60	539,04	808,56
AMPA Niño Jesús Guraso elkarte	CPEIPS Niño Jesús HLBHIP	1.960,94	784,38	1.176,56
AMPA Mercedarias Guraso elkarte	CPEIPS Nuestra Señora de las Mercedes HLBHIP	2.091,48	836,59	1.254,89
AMPA Olabide Guraso elkarte	CPEIPS P. Raimundo Olabide ikastola HLBHIP	2.197,15	878,86	1.318,29
AMPA San Prudencio Guraso elkarte	CPEIPS Pedagógica San Prudencio HLBHIP	2.506,58	1.002,63	1.503,95
AMPA Ana María Rivière Guraso eskola	CPEIPS Presentación María HLBHIP	2.110,12	844,05	1.266,07
AMPA Corazonistas Guraso elkarte	CPEIPS Sagrado Corazón-Corazonistas HLBHIP	4.903,91	1.961,56	2.942,35
AMPA Luis Querbes Guraso elkarte	CPEIPS San Viator HLBHIP	2.340,13	936,05	1.404,08
AMPA Guillermo Chaminada Guraso elkarte	CPEIPS Santa María Marianistas HLBHIP	3.924,54	1.569,82	2.354,72
AMPA Miguel Bengoa Guraso elkarte	CPES Egibide-Arriaga BHIP	1.537,54	615,02	922,52
AMPA Manuel Zaldivar Guraso elkarte	CPES Egibide-Nieves Cano BHIP	1.414,60	565,84	848,76
AMPA Samaniego Guraso elkarte	CPI Samaniego IPI	6.536,09	2.614,44	3.921,65
AMPA Ekialderantz Guraso elkarte	IES Ekialdea BHI	2.309,04	923,62	1.385,42
AMPA Los Tilos Guraso Elkarte	IES Federico Baraibar BHI	2.664,06	1.065,62	1.598,44
AMPA Bastobi Guraso elkarte	IES Koldo Mitxelena BHI	2.342,89	937,16	1.405,73

AMPA Etorkizun Alea Mendebaldea Guraso elkarte	IES Mendebaldea BHI	3.457,99	1.383,20	2.074,79
AMPA Txagorritxu Guraso elkarte	IES Miguel de Unamuno BHI	2.289,01	915,60	1.373,41
	Guztira	126.000,00	50.400,00	75.600,00

II. eranskina: Ezetsitako eskariak eta ezeztearen arrazoia

Hurrengo ikastetxeen IGEak	Ezeztearen arrazoia
AMPA Erdizka guraso elkarte (IES Lakua BHI)	Eskaria epez kanpo aurkeztea
AMPA Gorbea guraso elkarte (CEIP Antonio López de Guereñu HLHI)	Eskaria epez kanpo aurkeztea
AMPA Zadorrako zubia guraso elkarte (CEIP Abetxuko ikastola HLHI)	Eskaria epez kanpo aurkeztea